

**ESKOLAKO OHARRAK****BEKAK**

Urtero bezala, zuen seme-alabentzat jantokiko eta materialerako bekak eskatzeko aukera izango duzue. Epea urriak 9tik azaroak 9ra arte irekita egongo da. Kontuan izan online egitea aholkatzen dela, dena den eskolan bertan tramitatu daitezke; honetarako Idazkaritzan hitzordua telefonoz hartzea beharrezkoa izango da.

**BEKAK
BECAS
GRANTS**

ARROPA ESKAERA

Aurten proiektu berri bat jarri dugu martxan Haur Hezkuntzako etapan. 2-6 urte bitarteko haurrak naturarekin bat hazi eta hezteko proiektua da. Gure eskola leku ezin hobean kokatuta dago eta ingurune natural hau baliabide gisa erabiliko dugu.

Gure asmoa, eskolan, behar denerako arropa multzoa edukitzea da. Etxean soberan duzuen txubaskero, zira, katuska eta antzekoak eskatu nahi dizkizuegu. Arropa hau modu egokian erabiliko dugu eta beti COVID19aren aurkako protokoloa beteko dugu. Soberan duzuen arropa hau ikaslearen tutoreari eman, mesedez. Eskerrik asko.

**ESKOLAKO EMAIL KORPORATIBO FAMILIARRAK**

Eskolako digitalizazio prozesuan aurrera goaz, horregatik eskolako familia bakoitzarentzat eskolako helbide elektronikoa sortu dugu. Zuen seme-alabek, eskolako helbide elektronikoa jasoko dute. Komunikazio kanal ofizial gisa erabiliko dugu eta eskolako informazio guztia eta irakasleekin harremana aipaturiko bide honetatik egiteko aukera izango du eskola komunitate osoak. Familia bakoitzaren helbide elektronikoa ahalik eta azkarren aktibatu eta pasahitza aldatzea eskatzen dizuegu, mesedez. Helbide elektronikoa martxan jartzeko, gmail.com orriaren bidez egin behar da.



EUSKARA

2020-2021 Ikasturte honetan ere Udalak euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak emango ditu. Informatu eta egizu beste askok bezala, hobetu euskara! Eskaera egiteko EPEA: 2020ko urriaren 1etik 31ra. Informazio gehiago Oiartzungo Udaleko **Euskara Zerbitzuan: 943493842/ euskara@oiartzun.eus**

APARKALEKUA

Familia guztiei gogorarazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekuaren erabilpena COVID19a dela eta murriztu egin dela, ikasleek eraikinetik atera eta jolastu edo lasai egoteko eremu gehiago izan ditzaten. Horregatik garrantzitsua da bertara kotxerik ez sartzea. Eskerrik asko.



COVID 19

Lerro hauetatik gogorarazi nahi dizuegu, Hezkuntza Sailak urriak 2an publiko egin zuen dokumentuan zer jasotzen den: "ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, ikasle, irakasle zein bestelako langileak izan, ez eta COVID-19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik." Denon artean eskola babes dezagun.

Azkenik, gogorarazi nahi dizuegu, eguerdian etxean bazkaltzen duten ikasleentzat, eskola eremuko arratsaldeetako sarrera, ahal den neurrian 14:40etan izan behar duela, egoera ahalik eta ongien eutsi eta kudeatu ahal izateko. Eskerrik asko.

ESKOLA ORDUZ KANPOKOAK

Momentu hauetan, COVID19a dela eta eskola orduz kanpoko ekintzak (judo, euskal dantza, eskola kirola,...) ez dira egiten. Eskola komunitatearen asmoa, ekintza hauek berriz martxan jartzea da, Guraso Elkarteak honela erabaki eta egoerak hala ahalbideratzen duenean. Sentitzen ditugu eragozpenak.

**KIROLA
GOZATU
BIZI**

